

2022ko Tolosako
aurrekontuei buruzko
elkarrizketa anitzak:

**Zeri eman behar
diogu garrantzia?
Zer indartu?**



Irudia: www.jeanjullien.com

Udal barruko lanketa

Igo saioa arduradun politiko eta teknikoekin

2021eko urriaren 15ean, 9:30etik 11:30era, Tolosako Kultur Etxeko topagunean

Testuingurua eta lanketa honen helburuak

Tolosako Udala 2022ko udal aurrekontuak prestatzen ari da.

Aurrekontu horietan udal barruko zein herritarren partaidetza txertatzeko helburuarekin, azken urteetan Tolosatzen prozesuaren bitartez landutako prozedura lehenengoz aplikatzen ari da Udala.

Ilido horretan, urteko lehen hilabeteetan hainbat urrats eman dira:

- 2022rako lehentasunezko erronkak zehaztu dira, ikuspegi politiko eta teknikotik –urteko lehen seihilekoa-.
- Identifikatutako erronka horiek herritarrei aurkeztu zitzaizkien 2021eko ekainean –aurrez aurre eta *online* –, eta haien ekarpenak jaso ziren.

Testuinguru horretan, aurrekontuak modu parte hartzailean lantzeko urrats berriak aurreikusi dira, hemendik eta azaroan aurrekontuen lehen zirriborroa izan arte.

Igo urratsa, Udalarekin barne-lana. Urriaren 15ean eta 22an 2 lan-saio egingo dira Tolosako Udaleko arduradun politiko eta teknikoekin.

Helburua:

- Orain arte landu eta jaso denari erreparatuz –udal gobernuaren fokuak, teknikarien arabera kontuan izan beharrekoak eta herritar talde batek egindako ekarpenak-, 2022. urtean arreta bereziki zertan jartzea eskatzen ari zaigu Tolosa? Gaurko kontestuan, eta entzute aktiboa eginez, zertan uste dugu esfortzu berezi bat egitea dagokigula Udaletik?
- Arreta-gune horiekiko, dagoeneko zer dauka aurreikusia Udalak egitea? Zeintzuk dira, ikuspegi orokor batetik, arreta-gune horiei erantzun emango dieten udal egitasmo nagusiak?
- Non egon daitezke hutsuneak, 2022rako zerbait planteatzen genezakeen aztertu eta badagokio udal aurrekontuetan barneratzeko?

2. urratsa. Interesa duten herritarrekin lan-saio irekia egitea azaroaren 3an.

Helburua:

- Udal barruko lanketaren emaitza partekatzea.
- Lanketa hori aberastea, herritarren ikuspegitik: Udalean aurreikusitako proiektuak baloratzea, balizko loturak bilatzea, eta proiektu berrietarako ideiak proposatzea lankidetzan publiko-sozialetik.

Barruko lgo saioa: gako nagusiak

Parte hartzaileak



Arduradun teknikoak:

- Arantxa Estanga, Kirolak
- Jokin Monfort, Komunitatea eta Gobernantza
- Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantza z
- Alaine Izagirre, Ekonomiaren sustapena, Merkataritza, Feriak eta Turismoa
- Jone Miner, Hirigintza, Azpiegiturak, Etxebizitza
- Iñigo Muñoz, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak eta Auzoak
- Agurtza Zubero, Berdintasuna
- Jokin Ansorena, Kultura, Gazteria, Jaiak
- Ziortza Sanz, Euskara eta Hezkuntza

Arduradun politikoak:

- Olatz Peon, alkatea
- Begoña Tolosa, zinegotzia
- Nerea Letamendia, zinegotzia

* Ezin izan dute saiora bertaratu honakoek: Nerea Cereceda, Gazteria

Eskerrik asko guztioi!

Entzun eta jaso dugunetik, 2022. urtean arreta bereziki zertan jartzea eskatzen ari zaigu Tolosa?

Lehenik taldeka, eta gero osokoan egindako gogoetatik, **7+1 arreta-gune** nabarmendu dira:

1. Administrazioaren arintazun- eta gerturatze- beharra
2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna
3. Osasuna eta bizi-ohiturak
4. Gazteak
5. Bertakoa, Tolosakoa
6. Aldaketa klimatikoa
7. Indarkeria matxista eta LGTBI-fobiak
8. Intersekzionalitatea eta transbertsalitatea



1. Administrazioaren arintazun- eta gerturatze- beharra

Nahiz eta Tolosako Udala barruko funtzionamendua arintzeko eta erakundea herritarrengana gerturatzeko esfortzua egiten ari den –UDATE, barruko prozeduren lanketa...-, herritarren bizipena da tramiteak astunak direla, eta urrun gaudela.

Prozedurak eta tramiteak errazteaz gain, eragile batzuek eskatzen dute Udalak eman diezaiela akonpainamendua: “lagun iezaguzue gauzak elkarrekin egiten”.

Pandemiak urruntasun-sentsazioa areagotzea eta arrakala digitala ere eragin ditu. Digitalizazioak barruko prozedurak arindu ditu kasu batzuetan, baina herritarrekiko harremanean oztopo ere bihurtu da.

2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna

Zaintzaren garrantzia, bizitzako etapa-desberdinetan, eta komunitatearen garrantzia. Zaintza, bereziki bizitzaren azken etapan: nola bizi nahi dugu?

Zahartzaroa eta egoitza-aukerak: etxebizitza kolaboratiboak eta beste batzuk.

Adinartekotasuna bultzatzearen beharra: adin desberdinen arteko harremanak. Nola egin Tolosa geroz eta herri solidarioagoa? Zer paper joka dezake hezkuntzak?

3. Osasuna eta bizi-ohiturak

Osasun mentala eta emozionala oso presente daude orain kalean. Eta baita bizi-ohitura osasungarriari lotutako arloak ere: kale eta espazio publikoen garrantzia, auzoen eta komunitatearen garrantzia, naturarekiko lotura, mugikortasun osasuntsua...

4. Gazteak

Datorkiguna da arreta eskatzen ari direla, nahiz eta ez lortu oraindik arreta-gunea gehiago definitzea. Haietzako espazio propioak, aisirako aukerak... izan litezke esploratzeko gaiak.

5. Bertakoa, Tolosakoa

Bertako ekonomia zirkularra, bertako merkataritza, bertako landa-eremua eta baserriak, bertako produktuak... Horiek ere tolosarren ahotan dabilta. Eta baita bertako kultura ere.

6. Aldaketa klimatikoa

Mugikortasun jasangarria, energiari lotutako gaiak... horiek ere tolosarren kezken artean badute presentzia.

7. Indarkeria matxista eta LGTBI-fobiak

Oraindik tamalez gure gizartean arreta eta esku hartzea eskatzen dute; eta LGTBI-fobiak areagotu direnaren zantzuak ere badaude.

8. Interseksionalitatea eta transbertsalitatea

Alde batetik, herritarrek ere eskatzen dute sail desberdinen arteko lankidetzaren areagotzea, Udalean. Gauzatzen diren proiektuak zeharkakotasuna txertatua izan dezatela.

Bestetik, udal-proiektuetan interseksionalitatea txertatzea oraindik ere erronka bat da: adina, jatorria, klase soziala...

Arreta-gune horiekiko, zer daukagu aurreikusia edo ari gara lantzen Udalean? Eta zer beste esplora genezake? Egitasmo nagusiak eta haziak.

Behin arreta-guneak identifikatu ditugunean, hurrengo 2 galderei heldu diegu; baina denbora-kontuengatik, lehen zertzeladak jasotzera iritsi gara bakarrik.

1. Administrazioaren arintasun- eta gerturatze- beharra

Udalaren egitasmo nagusiak –martxan/aurreikusita–	Esploratzeko haziak edo ideiak
<ul style="list-style-type: none"> • Udal barruko prozedura eta tramiteak sistematizatu eta arintzeko hasi zen lanketa estrategikoak jarraipena izango du. Komeni da honi denbora on bat dedikatzea. • Dirulaguntzen formularioak arintzeko asmoa dago. • Tolosatzen Eskola Irekian arrakala digitalari erantzun emateko egitasmoak planteatuko dira. 	

2. Zaintza komunitarioa, adinartekotasuna

Udalaren egitasmo nagusiak –martxan/aurreikusita–	Esploratzeko haziak edo ideiak
<ul style="list-style-type: none"> • Etxez-etxeko laguntza eraldatu eta areagotu da. • Esku-hartzeko zerbitzua indartu da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Badago zaintza komunitarioa landuko duen proiektu pilotu bat garatzeko asmoa –oraindik definitzeke–. • Plantea genezake Tolosan etxebizitza kolaboratiboen inguruko hausnarketa bat? • Adinekoak kalean trizikloan bolondresen laguntzaz paseatzeko egitasmoa: ideia hor dago, trizikloak gordetzeko tokia definitzea falta da adibidez.

4. Gazteak	
Udalaren egitasmo nagusiak –martxan/aurreikusita-	Esploratzeko haziak edo ideiak
<ul style="list-style-type: none"> Haur, Gazte eta Nerabeen diagnostiko eta plana garatzeko prozesua 	
8. Intersekzionalitatea eta transbertsalitatea	
Udalaren egitasmo nagusiak –martxan/aurreikusita-	Esploratzeko haziak edo ideiak
	<ul style="list-style-type: none"> Plantea genezake lankidetzan mahaia edo antzeko figura bat berreskuratzea Udalean?

Ariketa erdizka geratu zaigularik, taldearekin honako konpromisoa adostu dugu: hemendik eta datorren ostiralera arte taula hau modu kolektiboan osatzen joatea; modu horretan urriaren 22ko saioari ahalik eta etekin handiena atera diezaiozun, bai udal barrurako eta baita herritarrekin azaroaren 3an egingo dugu saioari begira.

Gaurko, honaino iritsi gara: urriaren 22an gehiago!

Milesker guztioi, gaurko saioari mamia ateratzeagatik. Horixe baita helburua: elkar-entzuetik abiatuta lor dezagula guztiontzat balioa izango duen emaitza bat. Gaur badamatzagu presente izateko arreta-guneak; ea datorren astean aurrekontuak ikuspegi horrekin aberasteko aukerak lantzen ditugun.

Eskerrik asko guztioi!

Saioaren laburpen grafikoa

